


PIL-PILEAN

1996ko

3. alda



AURKIBIDEA

| | |
|-----------------------|-------------|
| * SARRERA | 1 |
| * GUTUNAK | 2-3 |
| * SORALUZEKO TALDEAK: | |
| - LIBURUTEGIA | 4-5-6-7 |
| - PILOTA | 8-9-10 |
| - EMAKUME TALDEA | 11-12-13 |
| * BERTSOA | 14 |
| * INKESTA | 15-16 |
| * DENBORAPASAK | 17 |
| * SALEROSKETAK | 18 |
| * BERBAK | 19 |
| * ZELESTINAREN TXOKOA | 20 |
| * HOROSKOPOA | 21 |
| * LEHIAKETA | 22 |
| * ERREZETA | 23 |
| * AJENDA | 24-25-26-27 |

EUSKARAK GUZTION BEHARRA DU

Euskal Herrian, euskararen aldeko mugimendua oso zabaldua dagoela ezin bada ukatu ere (ikus besterik ez dago urtean zehar dauden ekitaldietan nolako partehartze haundia dagoen) eguneroko lana eta jarduna ahaztuta dugunaren sentzasioa ezin kendurik gabilta. Badirudi instituzioetatik eta herri ekimenetik egiten denarekin nahikoa dela (ikastola, euskaltegia, kanpaina bereziak...) baina hori ez da egia, ez da nahikoa inondik ere.

Euskarak haurrera egitekotan gu guztion partehartzea behar beharrezkoa izango da, euskaldunena hain zuzen ere. Nolako partaidetza izan dezakegu baina esango du batek baino gehiago, eta erantzuna ematera gatoz lau lerrotan.


Alde batetik gure hizkuntza erabiliatz, arlo eta momentu guztietan ahal izanez gero, euskaldunen artean beti ere lehenengo hitza euskeraz izan dadila eta ohiturak aldatu arlo honetan, joera izugarria eta kezkarria baitugu erdera erabiltzen.

Bigarrenik erdaldunei laguntza eman. Ikasten ari denari, ulertzeko erreza den moduan hitzegin, poliki eta atseginez, erderara jo gabe, klaseak ematen ikasten duen beste ikasiko duelako kaleko harremanetan, praktikatu egingo du eta bideak, laguntzak jasoko dituelako.

Eta azkenik ikasten ez diarduenari presio positiboa egin. Euskara ikasi eta ezagutzaren beharra azaldu, euskaraz egiten diren ekitaldi etabarren berri eman. Beraz bakoitzak bere eremutik badaki zer egin, lantegitik, dendaratik, kuadrillatik... Hori bai dela euskararen alde egitea, jai eta mobilizazioetara joatea baino gehiago hauek ere beharrezkoak badira ere.

UDALAREN LAGUNTZAZ

Kontaktuak: 121 Posta kutxatila



75.14.34 Telefonoa



GUTUNAK

1. Kaixo Pil-Pilean:

Pozten naiz, gure Soraluzeko herritxoak, bere aldizkaria eukitzeaz, euskera bultzatuz. Lehenengo atala Berlineraino heldu da, eta pozik irakurtzen dabenak be hemen gara.

Hemen, nik baditut lagun kurdo batzuk, eta hauek harriturik gelditu dira, euskaraz idatzitako aldizkari bat dugula jakitean.

Hauek, borroka gogorra dute Gobernu Turkoaren aurka; beraien egoera gurearen antzekoa da. Hala ere, haiekin konparatuz, gure bizitza askoz ere hobea da. Haiek ez dute irratirik eta telebistarik, eta gainera ezin dute bere hizkuntzan ikasi.

Konparaketa hau egiten dut, denok konturatu gaitezenez norberarena den zerbait edukitzea zein ederra den. Berdin da nork, edo nondik lortu; ardura, dena lortzea eta egunean gero eta gehiago egitea da.

Nik bultzada txiki bat ematea nahiko nuke gure euskara kalean gehiago erabiltzeko, hori baita dagoen gauzarik politxenetarikoa.

Besterik gabe, zure hurrengo atala eskuratzeko zain, nire zorionik beroena zuretzat.

Euskararen lagun bat

Ah!, goraintziak nire koadrila eta familixako denei. Eta nahi duenak ere har dezala Berlingo patxo hotz bat.

3. SORALUZE: ADOSTASUNAREN ETA EGOKITZAPENAREN ARTEKO GATAZKA

Gure herria, Soraluze, erreferentzi bezala hartuz gero, gizakiak bere buruaru urteetan zehar egin dion galdera bat bururatzen zait: ia gizakia bere ongizatea lortzeko, adostasunean edo ezadostasunean bizi behar den ala ez. Ados dagoenaren irudia hartuz, ikus dezakegu bere egokitzapena, ezegokitzapen bat izan daitekeela, berak ez baitu ezer egin egokitzapena lortzearen eta gainera ez da kontziente bere egokitzapen egoeraz; bere egokitzapena adostasunaren ondorio izan daiteke, askotan beldurrarekin edo ekimen ezarekin pareka dezakegularik. Gerta daiteke ados ez dagoenak egokitzapena inoiz ez lortzea, neurri handi batean bere ezadostasunak egokitzapenaren bidea oztopatzen duelako. Agian, aurkakoa pentsatzen badugu ere, askotan eman daiteke gizakia ezadostasunean bizi izatea ez duelako egokitzapena lortu edo agian, egokitzapena lortu ez izateak, egokitzapenean eta ezadostasunean bizi den norbait izatera bultzatu duelako.

Ez da izango Soraluzen egokituak eta era berean ezadostasunean bizi diren pertsonak behar ditugula?, ez da izango...?

EGUN BAT

Gaua heldu da. Zerua izarrez beterik dago. Afaria prestatu dut eta oheratzeko prest nago, afaldu eta gero, noski, zinta bat entzuten eta grabatzen nagoen bitartean. Adiskide batentzat izango da grabatu dudan zinta.

Bihar lokalera joan behar dut, goizeko 10,30etan eta adrenalina gustora botako dut. Bateria jotzeak, lasaitu egiten nau. Hobeto irtetzen naiz jo eta gero.

Jazz, rock, funky musika gustatzen zait gehienbat. Musika, kalitatea, naturaltasuna eta soul edo bihotzez eginda badago, merezi du entzutea, baita dantzatzea ere. Horretan gabiltza artista sentitzen garen guztiok.

Atzo Kamasutra liburua hasi nintzen irakurtzen, oso interesgarria iruditu zait. Indiarrek, maitasunaren eta sexualitatearen inguruan daukaten ikuspuntuez mintzatzen da.

Orain nire helburua, irakurri dudana praktikan jartzea izango litzateke. Lasai nago, nire burua hobetzen doa eta helduko da maitasunerako garaia.

Bizi guztia drogaren menpe egon naiz eta aurten infernu horretatik irtetzen ari naiz.

Eguneroko lana izan arren eta momentu latzak igaro eta gero, pozten naiz, ikasten nagoelako zer den bizirik egotea. Eta haur txiki baten bezala, berriz bizia berreskuratzen. Urte bat daramat A.A. taldeetara joaten eta talde honetan asko ikusten, ikasten eta entzuten ari naiz, baita adiskide paregabeak aurkitzen ere.

Esan dudan bezala, bizi guztia iraun dut drogen menpean. Txiki txikitatik hasi nintzen alkoholarekin eta beste droga mota guztiak probatu ditut.

Lehenengo pausoa probatzea izan arren, beti drogaren menpe bukatu izan dut.

Drogekin hasi nintzenean, ezin izan nuen nire burua menperatu eta horrela poliki-poliki joan nintzen nire burua galtzen, arima galtzen, gaisotzen, hau da, hilda bizitzea zen.

Hau destino petrala!

Orain egunero bizi naiz, pausoka-pausoka, ahalegintzen naiz nire bizitza eta nire inguruan dauden lagunen bizia hobetzen.

Ni hobetzen naizen bitartean, nire mundua hobetzen joango da. Bizi guztia dut nire aurrean. Burua zabaltzen ari da eta bihotza berreskuratutako dut.

Agur bero bat.



LIBURUTEGIKO ARDURADUNAREKIN SOLASALDITXOA



1.ZENBAT URTE DARAMATZAZU LIBURUTEGIKO ARDURADUN MODUAN?

12 gutxi gora behera

2.ZENBAT URTE DARAMATZAZU POLIKIROLDEGIAN?

8 urte pasatu dira polikiroldegian hasi ginenetik.

3.ZE ORDUTEGI DAUKAZU?

Normalean astelehenetik ostiralera, 5etatik 9etara. Aurten lehenengo aldiz, zabalduko da uda partean ekainaren 24tik irailaren 13ra goizez. Orain arte ez da sekula goizez zabaldu, baina ikasleek eskatu egin dute eta hau dela eta zabaltea erabaki dugu.

4.ZEINEK EROSTEN DITU LIBURUAK?

Liburuak nik neuk erosten ditut.

5.NONDIK JASOTZEN DITUZU DIRU LAGUNTZAK?

Diru laguntzak Eusko Jaurlaritzatik eta Udaletxetik jasotzen ditugu. Bi motatako diru laguntzak izaten ditugu. Bat liburuak erosteko eta beste bat haur eta gazteentzako irakurketa zuzpertzeko ekintzak antolatzeko, ipuin kontaketak erakusketak eta abar. Honetaz gain euskal liburu multzo bat bidaltzen du zuzenean.

Eusko Jaurlaritzak eta kultur ministeritzak aldizkari batzuen harpidetza ordaintzen dute.

6.ZURE USTEZ LIBURUTEGIAN JENDEA BEHAR DEN MODUAN EGOTEN DA?

Benoa normalean bai, baina zaila da. Hainbeste ume eta nagusi batera ixilik egotea, batez ere talde lanak egitera datozenean. Normalean 8etatik aurrera ixiltasuna egoten da.

7.ZE LIBURU MOTA EROSTEN DUZU?

Denetik. Filosofia, medikuntza, matematika, literatura, geografia, kirol liburuak... Jendearen eskaerak apuntatu egiten dituzte gero liburuak eskuratzeko, orain hosteleriako eta dekoraziorako liburuak eskatzen dituzte modan daudelako.

8.ZEINTZUK DIRA GEHIEN IRAKURTZEN DIREN ALDIZKARIAK?


Batzuk aipatzearen "Ciclismo", "Muy Interesante", "Geo", "Argia", "Rock aldizkariak", "Pirenaica" "Bertsolari"...

9.ZER IRAKURTZEN DUTE GEHIEN GAZTEEK?

Ume txikiak euskaraz irakurtzen dute eta denetik, asko erabiltzen dituzte animalia liburuak eta komikiak. Bestalde, ipuin klasikoak, "Barbantxo", "Txanogorritxu", etab. asko gustatzen zaizkie. Gero nobelara pasatzen direnean zuzenean erderara jotzen dute. Euskerazko etapa bat egoten da eta gero salto bat ematen da erderara. Dena den badaude liburu asko euskeraz irakurtzen direnak, adibidez: Sagastizabalen "Kutsidazu bidea Ixabel", Bernardo Atxagarenak, Irigoienek, Saizarbitoriarenak, Jose Martin Elexpurenak etab.

10.LANAK EGITEKO INFORMAZIOAREN BILA ETORTZEN DIRENAK BEHAR DUTEN GUZTIA AURKITZEN DUTE ?

Zorte oso ona izan dugu eta material aldetik base ona daukagu, entziklopedia oso onak dauzkagu. "Espasa-Calpe" eguneratua, "El Gran Larousse" "Sopena", etab.



11.ZE ZERBITZU ESKEINTZEN DITU LIBURUTEGIAK?


Salan liburu guztiak erabil daitezke.Aldizkariak eta liburu guztiak.Bestalde, prestamo zerbitzu bat daukagu etxera liburuak eramateko.Kontsultako entziklopedia batzuk ezin dira liburutegitik atera,baina ehuneko laurogeia etxera eraman daiteke. Ematen da normalean 15 eguneko epea liburu itzultzeko, baina eskatuz gero luza daiteke. Lanak egiteko fotokopiak atera daitezke bertan dugun fotokopiagailuan.

12.ZE ORDUTAN EGOTEN DA JENDE GEHIAGO?

Neguan gehien lehenengo ordu bietan egoten da zortzirak aldean dena lasaigo gelditzen da.Gero eguna luzatzen doan heinean jendea ordutegia atzeratzen joaten da eta Uztailan,bederatzietan jendea oraindik sartzen da liburuak hartzeko.

13.EZ ZARA ASPERTZEN LIBURU ARTEAN?

Aspertzeko ez daukat astirik, jornada erdi egiten dut lan, liburuak ordenatu,fotokopiak atera,etab. luze bat,ASPERTU? ezta beste lau ordu egingo banitu ere... Lan polita da, oso gustora nago eta oso gratifikantea da.




Erretegi

Jatetxea


ESOZIA

B.º Esozia, s/n. - ☎ 943 - 75 10 01

20580 SORALUZE - PLACENCIA DE LAS ARMAS



4 MOTZA



5

6

7 LUZE

Handwritten mark or signature in the top right corner.

MIKEL GARTZIAREKIN BERRIKETAN



Zenbaki honetan pilota mundua hobeto ezagutzeko aukera izango dugu Mikel Gartziaren bitartez. Bere burua elkarrizketarako lehen unetik prest agertu duela kontutan harturik galdera batzuk egingo dizkiogu bera eta bere ingurua hobeto ezagutzeko asmoz.:

1. ZENBAT URTE DARAMAZU PIILOTA MUNDUAN?

Zazpi urte nituela hasi nintzen pilotan. Orain 17 urte ditut, beraz 10 urte nabil mundu honetan.

2. ZERGATIK HASI ZINEN?

Gogoratzen dut, hasieran, kuadrilla osoak jokatzen genuela pilotan. Kirol honek denok elkarrekin egoteko aukera ematen zigun, gainera oso giro polita zegoen eta entrenamentuetan adin guztietako gazteak elkartzen ginen. Geroxeago, batzuk nahiago zuten beste kirol batzuetan aritzea eta pixkanaka jendeak entrenamentuetara etortzeari utzi zion.

3. NON ENTRENATZEN ZENUTEN?

Eguraldi ona egiten zuenean, ikastolako frontoian eta eguraldi txarra egiten zuenean batzokian, pilotari asko ginen eta askotan entrenatzeko toki gutxi edukitzen genuen.

4. ZENBAT ENTRENATZAILE EDUKI DITUZU?

Hasi ginenetik, gure entrenatzaile nagusia Arrieta izan da. Eduki ditudan beste entrenatzaile batzuk, Eliodora, Pedro, Elizburu, Txutxo... izan dira.

5. ENTRENAMENDUAK GOGORRAK DIRA, DENBORA ASKO KENTZEN DIZUTE?

Denbora asko eramaten du. (Egunero bi ordu gutxi gora behera). Entrenamenduak nahiko gogorrak dira eta partiduak ditugunean entrenamenduen intentsitate maila handitu egiten da. Aipatu nahi dut Sorluzen zorte handia dugula, entrenatzeko tokia baitugu. Beste herri batzutan, berriz, zailtasunak dituzte entrenatzeko tokiak topatzerako orduan.

6. LEHEN ETA ORAIN ZEINTZUK DIRA ZURE GUSTOKO PILOTARIAK?

Niri beti gustatu izan zaidan pilotaria Galartza izan da; gaur egun gustoko Beloki dut.

7. ZEINEN KONTRA JOKATUKO ZENUKE GUSTORA PARTIDU BAT?

Niri Belokiren aurka jokatzeko gustatuko litzaidake, bera delako gaur egun dagoen pilotaririk handiena bai bere gaztetasunagatik eta baita ere azaltzen duen indarrarengatik.

8. LORPENIK HANDIENAK?

Elgetako ETBko lau t'erdiko txapelketa irabazi nuen. Horretaz gain, 1995ean Euskal Ligan azpitxapeldun izan nintzen.

9. LASAITASUNEZ JOKATZEN DUZU?

Nire kualitate nagusiarena lasaitasuna da, partiduak irabazteko gustatzen zait, baina dudarik gabe garrantzitsuena parte hartzea da. Frontoia gainezka egotea gustatzen zait, jende asko egoteak motibatzen nau eta.

10. PILOTAN JARRAITZEKO ASMORIK ETA MAILAZ IGOTZEKO?

Oso gustora nabil pilotan eta jarraitzeko asmoa daukat. Nire lehen helburua afizionatuetara pasatzea da eta gauzak ondo joanez gero, profesionaletan jokatzeko gustatuko litzaidake noizbait. Badakit azken helburu hau lortzea zaila dela, baina ahalegin guztiak egingo ditut hau lortzeko.

11. ZER HOBETU BEHAR DUZU HONETARAKO?

Indar gehiago hartzea eta eskuak gogortzea.

12.ZER BEHAR DU PILOTARI BATEK PROFESIONALA IZATEKO?

Fisikoki,kualitate onak edukitzea ezinbestekoa da (Pilotaria jaio egiten da).Pilotariak indarra eta gorputz ona eduki behar du,baina batez ere,garrantzitsuena esku onak edukitzea da,hauek baitira pelotarien tresnak.Fisikoa garrantzitsua bada ere,badaude beste gauza batzuk kontutan hartu behar direnak:asko zaintzea,dedikazioa,sakrifizioa...

13.PILOTARI GAZTEENTZAT AHOLKURIK?

Pilotaren sekretu nagusia,frontoian ordu asko sartzea da eta eskuko mina agertu arren,aurrera jarraitzea.

14.ZU HASI ZINENETIK, ZALETASUNA GEHITU EGIN DA?

Soraluze mailan,zaletasuna haunditu egin da (gero eta ume gehiago etortzen da pilotan jokatzera).Aipatu nahi dut,Soraluzeko afizioa paregabea dela beste herri batzuekin konparatuz,Soraluzeko frontoia gainezka egoten da.

15.ATSEGIN DUZUN BESTE KIROL BAT...

Txirrindularitza.Pilotaz gain,hau da gehien atsegin dudan kirola,dauden kiroletatik gogorrenetarikoaena baita.

16.PILOTARI IZANDA GEHIAGO LIGATZEN DA?

Gazte mailan ez da nabaritzen asko,baina profesionalak ikusirik,badirudi baietz.

17.ANEKDOTARIK...

Bai,ez dut inoiz ahastuko.Elgetan irabazitako kopa inoiz jaso izan dudan koparik ederrena zen.Aldageletara nihoala,trabatu,kopa lurrera erori eta apurtu egin zitzaidan.

18.IKUSTEN DUZU SORALUZEN ETORKIZUNA EDUKI DEZAKEEN PILOTARIRIK?

Bai,adibidez,Muguruza,Calles,Laskurain,Heriz,Eguren,Arrieta...

Hau dena aditu batek esan duela kontutan harturik,ziur gaude etorkizun labur batean pilotari haundiak edukiko ditugula Soraluzen.

EKIN GOGOR PILOTARI



EMAKUME TALDEKOEKIN BERRIKETAN

1-NOIZ SORTU ZEN TALDEA ETA ZERGATIK?

1992ko Ekainan biltzen hasi ginen, Martxoaren 8aren inguruan hitzaldi bat egon ondoren.. Argi ikusten genuen gure herrian hutsune handi bat zegoela emakumearen inguruan eta honek biltzera eta antolatzen eraman gintuen.

Gure taldearen helburu nagusia, gizartean dagoen eskubidea eta aukeren desberdintasuna gainditzea litzateke eta honetarako Sorluzeko emakumeengan kontzientzia sortu giza-ereduak aldatzen joateko.

2-TALDEA SORTU ZENETIK SOMATU DUZUE ALDAKETARIK GIZONEKIN DITUZUEN HARREMANETAN?

Eztabaida gogorak sortu izan dira eta hau kontzientzia hartzen joateko lehenengo urratsa da.

3- TALDEKO GUZTIAK EMAKUMEAK ZARETE? GIZONAK TALDEAN SARTZEKO AUKERARIK BADAGO?

Denak emakumeak gara eta orain arte ez dugu planteatu taldean gizonen partaidetza. Garbi daukaguna da taldean sartzen dena, aukeren berdintasunaren alde borrokatu beharko duela.

4-ZE EKINTZA MOTA ANTOLATZEN DITUZUE ETA ANTOLATUKO DUZUE URTEAN ZEHAR? BADAUKAZUE LAGUNTZARIK?

Gure ekintzen bitartez emakumeek bere esparrua (kultura, sexualitatea, lana,...) baloratzea nahi dugu. Honetarako, ikastaroak, hitzaldiak, antzerkiak, erakusketak, etab. antolatzen ditugu.

Hurbilen daukagun ekintza "EUSKERA ETA EMAKUMEA"ri buruzko hamabostaldia da "PIL PIL"ean egiten dutenekin burutuko duguna. Bertan, bertsolariak, filmeak, hitzaldiak egongo dira behingoz emakumeak protagonistak izango direlarik euskararen inguruko munduan. Hau dena bukatzeko, sorpresa bat dugu prestatuta, herriko jaien atarian, MAIXA ETA ITZIAR taldearekin erromerixa alai bat ospatuko dugu

hamabostaldiaren amaieran. Ekintza hauetara herri guztia gonbidatzen dugu.

Ekintzetarako diru laguntzak Udaletik, Emakundetik eta Foru Aldunditik jasotzen ditugu.

5. ESKAERA BEREZIREN BAT?

Aspaldidanik, udalari eskatzen ari gara Emakumearen arloa sortzea, eta oraingoz lortu dugun bakarra izan da orain arteko "Ongizate eta Emakume Batzordea" deitzea. Gure eskaerarekin gehiago lortu nahi izan dugu, pentsatzen dugulako gizartearen beste arloak ere tratatu hezkuntza, osasuna, nekazaritza, lana, eta abar.

Une honetan arestian esandako gaien inguruan txosten bat prestatzen ari gara udalan aurkezteko asmoz "Soraluzeko emakumeentzako ekintza positiboen plana" 1997 eta 1998 urteetan garatzeko.

EDURTZA



KATETEGIA



**SANTA ANA KALEA
TFNOA. 751038**

HEMEN LAGUNAK BATZEN DIRA

EMAKUMEA ETA EUSKARAREN HAMABOSTALDIA

EGUTARAZIA

UZTAILAREN 11^a (OSTEGIOLA)

"ZERGATIK PANPOX" gaueko 10etan Kultur Etxeko zine aretoan
Gidoilaria: Arantxa Urretabizkaia Zuzendaria : Xabier Elorriaga.

UZTAILAREN 12^a (OSTIRALA) BERTSO GAIALDIA

Gaueko 10etan Kultur Etxeko zine aretoan...
BERTSOLARIAK: Estitxu Arozena, Amaia Agirre, Iratxe Ibarra, Maialen Lujanbio, Ainhoa Agirrezabaldegi. Gai jartzailea : Maite Aristegi

UZTAILAREN 16^a (ASTEGIAREN HITZALDIA)

Arratsaldeko 7etan "Itzaropena"n
GAIA: "EUSKARAREN ERABILPENAREN FEMINIZAZIOA"
Hizlaria: KIKE AMUNARRIZ (Siadekoko partaidea)
"Gaur egun emakumeok, zergatik hitzegiten dugu euskaraz gizonezkoak baino gehiago?"

UZTAILAREN 18^a (OSTEGIOLA) ZINEA

"Denboraren Gibelean" gaueko 10etan Kultur Etxeko zine aretoan. Zuzendaria. Mirentxu Purroii.

UZTAILAREN 19^a (OSTIRALA) ERROMERTIA


GAUEKO 11etan PLAZA ZAHARREAN ...

-MAIXA TA ITZIAR-

ANTOLATZAILEAK: EMAKUME TALDEA ETA EUSKARA TALDEA
LAGUNTZAILEAK: Soraluzeko Udala, Foru Aldundia eta Emakunde

INKESTA (2)

ZER NAHIKO ZENUKE JAIXETARAKO ?



OSCAR GORGE

22 URTE

IKASLEA

Ez dakit, jokuak edota bazkarixak eta halakuak, bazkariren bat edo afariren bat kuadrilendako. Ez dakit ba, zezenak eta baldin badare ondo. Kontziertoak egongo dira. Alemanak eta gustazen jataz, Fuck Your Crew edo halakoren bat.



JESUS MOYA

47 URTE

ESPEZIALIZTA

Ba dantza, dantza orkestra, Hippy talderik ez. Nik nagusi bezala ezkatzen dut. Gazterizandako zeozer egonda be ondo, bat edo bi dantza egiteko. Futbitoko txapelketaren bat. Emen dagoena, herri kirola ondo dago gustatzen zait, bizi osoan ikusi izan dot.



INMACULADA MATUTE

32 URTE

ETXEKO AMA

Ba, ez dakit jaixetan ez naiz hemen egoten eta Gustatzen zaizkit baina uda partean direnez alde itxen dot. Aspalditik ez naiz jaixetan egon.



NATI ARANBERRI

80 URTE

JUBILATUA

Ba, Fiesta eder batzuk, soinujole batzuk, bertsolarixak, karreristak edo horretxek. Dantzan ez dou urtetzen, balkoitik begiratzen dot.

INKESTA

ZER NAHIKO ZENUKE JAIKETARAKO ?




MAITE ATXA

24 URTE

ADMINISTRARIA

Ez dakit herri kirolak egoten diren. Nik olan ez neban aldatuko. Neri egiza ezanda jaiak eta ez jataz guztatzen. Egoten naiz baina igual kanpora eta mendira joatia naizoa dot. Gabetan eta beti da berdina, egunez oso gutxi irtetzen zara eta nik ez daukat zer ezanik triatloia ta horrelako frogak egon ezkerro parte hartuko neban baina prestatu egin beharko nintzateke.



PEDRO AGIRRE "KANPAIA"

63 URTE

ALMACENERO

Santanetan ? Oinarte egon ziranak onak egon dira, baina, hemen ez dao ferixarik itxerik. Bertsolarixak bai. Hemen pelota partidua ipintxia gaitza izaten da, bertakuekin ezin leike ibili, kanpotikan ekartzeko igual garestixa. Ez naiz hemen egoten, anka itxen dot emendik, donostiara joaten naiz.



AMAIA CALVO

9 URTE

3. MAILAN

Bo. Banaka gehixau. Dragoia, Norixia, eta Zaldixena Zezenak eta pailasuak bebai. Musika asko ez. Jolas gehixau egotia gustauko jatan. Gaztelu-puzgarria ...



IÑAKI ARRIBILAGA

6 URTE

1GO MAILAN

Zezenak, jaietan kalera etortzen naiz. Pailasoak ere. Autotxokiak gustatzen jataz. Plaentxira nahikua barraka etortzen dira. Balsa jeitxiera bebai gustatzen jata.

LETRA-ZOPA

Topa itzazu Soraluzeko kaleen izenak. Ea zenbat topatzen dituzun

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| F | G | E | O | L | I | D | S | A | N | T | A | N | A | Z |
| E | U | O | P | S | I | P | S | A | S | R | T | P | L | A |
| R | E | T | E | G | U | A | I | S | U | R | O | O | A | T |
| F | E | R | R | E | K | A | L | D | E | I | N | X | O | E |
| A | I | A | L | I | R | P | S | A | L | E | E | I | L | I |
| T | P | A | X | S | A | E | S | X | I | N | M | R | P | G |
| F | F | R | S | A | A | T | E | L | E | Z | E | P | J | E |
| J | E | Z | E | L | E | X | T | R | S | Z | U | P | E | T |
| E | Z | T | L | Z | I | K | R | Z | E | P | D | K | N | L |
| B | F | A | R | A | E | A | L | B | N | G | A | L | I | A |
| U | L | L | T | X | B | A | K | S | A | L | G | J | K | B |
| A | S | O | S | E | E | Z | A | E | O | I | E | X | U | I |
| M | T | B | L | I | N | M | O | N | E | O | A | G | F | D |
| H | E | A | S | N | A | I | G | A | B | A | B | I | X | O |
| I | K | G | R | U | P | E | E | S | D | A | N | E | I | A |

BOKALAK IHESKA

Falta diren bokalak jarrita, osatuko duzu:

"Z _ Z _ _ K B _ L _ _ R _
_ P _ R B _ LTZ"

(Esaera zaharra)

ASMAKIZUNA

ZEIN DA NIRE AHIZPA EZ

DEN NIRE AMAREN


ALABA????

G.E.

XAKEA

EZENARRO-CUETO

R.I.A. TXAPELKETA POSTALA 1994-1996



BELTZEK ERREGINAREKIN PEOIA JAN DUTE (D4 -n) BAINA ZURIEK AZKAR ORDAIN ARAZIKO DIE ATREBENTZI HORI.

ZURIAK IRABAZLE 3 MUGIMENDUTAN

SOLUZIOAK AZKENENGO ORRIAN

SALEROSKETAK



ETXEBIZITZAK

* Etxebizitza esku-eskura. Prezio interesgarria.

Tfnoa. 751079

* Soraluze. Gabolatx Kalea, 23-1 ezk. Kanpo aldera ematen du. Ekonomikoa.

Tfnoa. 751034/751933

* Pisua salgai Atxurin. Txikia eta al-tzariekin.

Tfnoa. (94) 625677

* Pisua salgai Olan. Barrutik eta Kantik berriztua.

Tfnoa. 751774

* Pisua salgai Estazio Kalea. Merkea.

Tfnoa. 753037

* Lokal komertziala salgai. Galdetu Merce Zapatadendan.

* Garagea salgai Baltegieta kalean. Galdetu Etxeberria erlojudendan.

* Duplexa, 3 gela, 2 bainugela, egongela. Herri erdi-erdian.

Tfnoa. 104086

* Pisua salgai. Ekonomikoa. Kanpo aldera ematen du.

Tfnoa. 752065

* Etxea salgai. 3 gela, egongela, bainugela, sukalde hornitua, trasteroa eta terraza.

Tfnoa. 752384 (Gauzez)



LANA

* O.H.O., L.H., B.B.B., Frantses eta Ingeleseko partikularrak. Merke.

Tfnoa. 199346 (Gauzez)

* Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest dagoen emakumea.

Tfnoa. 752386

* Esperientzia duen neska etxeko lanak egiteko bere burua eskaintzen du.


Tfnoa. 751155

BESTELAKOAK

* Ondo dagoen keroseno berogailua salgai.

Tfnoa. 752380

* Moduloa salgai Benimar 7 x 3,5. Bañares Kanpinga. Errioxa. Galdetu Mari-Mar harategian.



Zuk ere atal honetan agertu nahi baduzu 121 Posta Kutxatilara idatz ezazu edo tabernetan dauden aldizkariaren buzoietan sar ezazu zeure mezua (edozein salerosketa mota izan daiteke).



PLAENTXIKO BERBAK

- * **EGUZKI GALDATAN** : Erre egiten duen eguzkitan egotia.
-Ezeizu ahaztu jaixetako txapela, eguerdixan plaza berrixan EUZKI GALDATAN egon biakozu ta.
- * **FIRIN FARAN IBILI**: Ardurarik gabe eta alai ibili .
-Jaixak hasi zianetik gustora habil kalez-kale,beste zereginik barik FIRIN FARAN.
- * **BERANDUKO GAZTAINA**: Beti berandu heltzen dena.
-Hemen dator gure beranduko gaztañia ,hau etorri orduko dana amaitxuta dao.
- * **DEMASA**: Ikaragarria, kristona den zerbait edo norbait.
-Ze, atzo juerga ona botata ala? DEMASA neska DEMASA!
- * **ERREGULAR**: Jakina, zalantzarik gabe.
-Hi Santiago Santanak Uztailan 25-26an ditxun ez? Erregular, hori galdetzia be.



KLIP




PAPER DENDA

75•20•56

SORALUZE





ZELESTIAREN TXOKOA



ZORIONAK DELIKA!

Gure trispasek Uztailaren 12an mende laurden bat beteko du. 25 urte. "ZORIONAK ZURI, ZORIONAK ZURI la la la la". Badakizu, zimuortxo hoiek disimudatzeko krema hidratatzailea erabiltzen hasi beharko duzu lehenbailehen, ja, ja, ja... Azken urte hauetan antolatzaile lanetan oso ondo moldatu zarela kontutan hartuz pentsatu dugu honneta jarraituz gero, berehala eskuratuko duguda titulo berriren bat, hau da, " ardiak onrazten aditua " izatetik, " antolatzaile lanetan diplomatua " izatera iritsiko zarela.

EZ ZARA KEXATUKO. EZ? Aizu, zure urtebetetze egunean ez ahaztu belarritakoa kentzea bestela gure tirakadekin batek daki zer gertatuko den.

BENO GIZONITXO ONDO PASAN. opari asko jaso, eta ahal duzun guztia aprobetratu!

Gu irrikitan gaude zure kontura tragotxo bat hartzeko...
A zelako muturra ,eeeeeee?????????

EKIPOA

BAZKARI AFARI BEREZIA

Soraluzen bazkari edo afari bereziak gero eta gehiago dira , kinta bereko pertsonak, athletic zaleenak ,erreal zaleenak , andereno bera eduko dutenenak etab. luze batenak , edozein aitzaki da ona egun on bat pasatzeko ta zorte pixka batekin parrandak gauda eta hurrengo goiza ere hartzen du.

Ba beno bazkari afari rallye honetan proposamen bat proposatzen dizuet. Betebehar hauek betetzen dituztenentzat aukera aparta, Afari mortala jaietan :

- Aurpegiari orainen bat baino gehiago edukitzea.
- Alaia,umoretsua eta parrandazale amorratua izatea .

Honako hauek betetzen badituzu eta jaietan sekulako juerga botatzeko gogoia badaukazu idatzi 121 postakutxatilara eta argibide gehiago emango dizkizugu.


TXUNDA TXUNDA TXUNDATATXUNDA TXUNDA TXUNDA
TXUNDATATXUN...!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA



ARIES


Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra

OSASUNA: Udaberriko odol aldaketak on egin dizula ezin ukatu, eh? Halere, alegien garaia denez, kontuz azalarekin. DIRUA: Jaiak jai ibiltzeak ez dizu onik egingo, atsedean hartu ta txanponak aurreratu opor lasaiak izateko. MAITASUNA: Nobedaderik ez lige kontuan... ni hirekin ezkondu, ni hirekin JA, JAI... 



TAURUS


Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra

OSASUNA: So egiozu zirkulazioari, itsas ertzean hanka bainuak, paseadak... Eguzkia hartzekotan hankak oso altu jarri. DIRUA:  Maitiak galde ezin zoztan poltsa banuenez (bis) poltsa, poltsa bannuela baina dirurik ez dirurik ez. MAITASUNA: Zaindu ezazu harreman polit hori maitasuna eta samurtasuna baitira altxorrik ederrenak.



GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era

OSASUNA: Lasaitasunaren poderioz, moteltasunera jo eta depresio bidean jarri. Espabilatu apur bat, animo jaietan. DIRUA: Zeure aldetik baxu xamar bazabiltza ere, kideak badauka... Haren lepo bapo ibili !!!!! MAITASUNA:  Nere nobixua txori-he-rrikua praka zaharrak baina dirua nahikua.



CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra

OSASUNA: Doministiku horiek eguzkiaren eraginez dira, ez da ezer... Txapela eta haize korronteak ez inguruan. DIRUA: Ez horrenbeste jaramonik egin "kartilari" eta hainbeste behar dituzun oporretan erabili dirua. MAITASUNA: Xamurtasunari eutsi! bide onetik zabilta eta musu galanta merezi duzu.



LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra

OSASUNA: Ea gorputza piska bat argaltzen duzun, denak begira izango dituzu bestela. Halere itxura, itxura besterik ez da. DIRUA: Loteriak, kinielak... jokutzen baduzu, beti ere neurrian, irabazteko aukera. MAITASUNA: Niri zegokidala esan eta zuk denei erakutsi! Exibizionista ikutua ona da, baina zeurea ez da maitasuna, sexoa eta sexoa baino !!



VIRGO

Abuztuaren 24etik Irailaren 23ra

OSASUNA: Footing egiteak on ugari ekarri dizu eh? orain polit-polita zaude ez desitxuratu ahoa hainbeste zabalduz. DIRUA: Ez ibili txartxarkerietan, diruak hobeto erabili. MAITASUNA: Heldu bai... baina tangailoa jarri barik. Maitale askea, lotua baino hobea.



LIBRA

Irailaren 24etik Urriaren 23ra

OSASUNA: Burutik eginda ibiliko zara sasoi batez baina disfruta ezazu, ez da kezagarria eta. DIRUA: Zeken itxura horri aurre egiteko, lagunak gonbidatu zerbaitetara, bapatean eta sorpresaz. MAITASUNA: Zoroaldi honetan ez duzu aholku beharrik izango bihotzari jarraitu eta ez buruari.



SCORPIO

Urriaren 24etik Azaroaren 22ra

OSASUNA: Eguzki galdatan ez egon, takian-potian ura edan, egunero mendira joan... ilargiari gabon! DIRUA: Opor garaiak heldu dira eta lanari utziozu, merezitako atsedena hartu! MAITASUNA: Zabaltu ezazu bihotza zuk dakizun bezala, eta gutxiago epaitu zeure burua eta besteen jarduera.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21ra

OSASUNA: Metodoari jarraitu eta, ikusten! Lortu duzu. Orain maitemindua besterik ez da behar, erreza eh. DIRUA: Lanbidea aldatzeko une aproposa duzu, baina lana lana da. MAITASUNA: Zeremonia gehiago jarriozu harremanari! Zirt Zart, eta apisonadorearen gisa ibiltzea ez da zilegi.



CAPRICORNIUS

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra

OSASUNA: Jota egotetik jota dantzatzera, hau aldaketa jau! Indarberri eta gaztetu ere egin zara barren! DIRUA: Inbertitu bazenuen, etekinetatik bizitzeko garaia da, bestela beharrera! MAITASUNA: Zure jarrera aldaketak on egingo dizu sasoi honetan. Harreman zabalak landu, baina ez sakonean.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra

OSASUNA: Ondokoen arazo guztiei so egiteak ez dizu onik egingo. Entzutea ona da, baina ez itzazu zureak bailira hartu. DIRUA: Asmatzaile ona zarenez gero, zure arloan hobeto lan egiteko zerbait asmatu. Arrakasta izango luke! MAITASUNA: Zure ligatzeko joera hori menperatu beharko zenuke, badakizu opor garaian beti ligatzen duzula.



PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra

OSASUNA: Ez zera sasoi honetan gaitxotuko eta, hain gustoko duzun uraz gozatu (itsasoa, igerilekua...). DIRUA: Ez da txarra esku zabala izatea, baina tontoa... iruzurra sartuko dizute! MAITASUNA: Harremanetan sakontzeko garaia da. Ez izan beldurrik etorkizunari! Gerokoak gero eta orain bero-bero.

LEHIAKETA

SORALUZKO 10 BASERRIREN IZENAK
IDATZI ETA BIDALI 121 POSTAKUTXATILARA
ZURE DATUEKIN.

ERANTZUN ZUZENEN ARTEAN OPARI EDER BAT
ZOKKETATUKO DA.



ERANTZUNA: _____

ZURE IZEN ABIZENAK _____

ZURE TELEFONOA _____

AURREKOAREN SOLUZIOA:

Bedeinkatua izan dadila

Sagardoaren grazia

Bai ere eta kupida gabe
edaten duen guztia.

Edari honek gizon askori
ematen dio bizia

hau edan gabe egotea da
niretzat penitentzia.

IRABAZLEA: AITZIBER

GANTXEGI

DENBORAPASEN SOLUZIOAK:

1) **Letra-zopa:** Kalebarren, Gabolatz, Errekalde, Zeleta, Baltegieta, Santana eta Kalonge.

2) **Bokalak iheska:** "Zozoak Beleari ipurbeltz".

3) **Asmakizuna:** Neu.

4) **Xakea:** 1. a2-a3 , b4-a6 2. c1-g5 , a6-c5 3. g5 x e7 , 1-0 Erregea tablero erdian lagatzeak arrisku asko ekar ditzake.

ERREZETU

BARAZKIEN ERREZETU

OSAGAIAK:

(Lau bazkiderentzat)

- Bi kilo bildots
- Bi kipula
- Bi azenario
- Bi porru
- Sei zainzuri
- Bi tomate
- Bi baso ardo zuri
- Bi goilarakada ilar
- Lau txanpinoi handi xafletan

PRESTAKETA

Zartagin batean olioja jarri berotzen, berotuta dagoenean bertan bildotsa zatituta ipini eta gorritzen utzi. Ondoren frijitzeko erabili dugun olioja erretilo batean alde batera utzi eta hauxe erabiliko dugu barazkiak egiteko, kontutan eduki azenarioak xehetzerakoan ez larregi xehetzea, ikusi egin behar baitira azenario zatitxoak.

Barazkiak behin egin ondoren bi tomateak botako dizkiogu azala kenduta (zurituta) eta dado itxuran moztuta. Hau eginda, bertan bildotsa jarriko dugu ardo zuriz (txorrostada batez) , ardo zuri hori lurruntzen denean, salda edo ur epela erantsiko diogu ta sutan eduki egiten ordu erdiren bat gutxigorabehera. Eta bitartean prestatuko ditugu bildotsa jateko lagungarri guztiak, hala nola, patata egosiak , ilarrak , txanpiñoiak xafleta, zainzuriak edo frantsez porruak etab...

Eta azkenean hauek guztiak bildotsari gainean botatzen zaizkio.

IÑAKI CERRAJON

AJENDA

A. "BETI PREST"

UDAKO KANPALDIAK

Udan egingo diren bi kanpalditara joateko aukera iragarri nahi dizuegu, Kanpaldi hauetara 12 eta 17 urte bitarteko (biak barne) gaztetxoak joan daitezke, hau da O.H.O.-ko 6. mailatik B.B.B.-ko 3. mailararte.

Egingo diren lehenengo kanpaldia 12 eta 14 urte bitarteko (biak barne) gaztetxoei zuzendua dago eta Uztailaren 16-tik 30-ra izango da. Burgoseko probintzian dagoen ingurune interesgarrietan izango da, Ebro ibaia igarotzen den lekutik, hain zuzen Manzanedillo-ko herri txikian, Medina de Pomar herritik hurbil. Kanpaldi honetan aurrera eramango diren ekintzak honako hauek izango dira: ingurune naturalaren ezagutza (kasu honetan menditsua), jokoak, kirolak eta tailerrak; Ebro ibaia bainu freskagarriak hartzeko erabiliko dugula ahaztu gabe.

Bigarrena 15 eta 17 urte bitartekoentzat (biak barne), Uztailaren 25-tik Abuztuaren 8-ra egingo da. Kanpaldi hau mugikorra izango da. Baita ere Burgosen, Población herrian ekin eta Ebro ibaia jarraituz, Covanera herrian bukatuko dugu, egunero ibilaldi bat eginez.

Aurreinskripzioa egiterako orduan berreskuratuko ez diren 500 pzta. ordaindu beharko dira, azken prezioaren barne egingo direlarik.

Kanpaldi hauek Deba Behea bailara osoarentzat zuzenduta daude, bailarako Astialdi taldeak antolatuta hain zuzen ere (BERRI-PREST, GORUNTZ, ZUHAITZ eta GOGONPAILAK).

B. LUDOTEKA PARRANDAN

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Ludotekan zuentzat udaleku irekiak antolatu ditugu. Egun hauetan elakrrekin primeran pasatzeko aukera duzue. Aste osoa izango duzue jolasean eta beste hainbat ekintzetan aritzeko. Udalekuak arratsaldez izango dira, 4-retatik 7-etara. Txandak honela banatuko dira:

| | | |
|---------|--------------|------------------------------|
| Uztaila | 1-etik 5-era | O.H.O.-ko 1. Eta 2. mailak |
| Uztaila | 8-tik 12-ra | O.H.O.-ko 3, 4 eta 5. mailak |
| Uztaila | 15-tik 19-ra | O.H.O.-ko 6, 7 eta 8. mailak |

D. MENDI TALDEA

* UZTAILA:

7 Pirineotara irteera.

* IRAILA:

8 Urkiola-Kanpazar-Soraluze zeharbidea.

15 Besaideko Eguna.

29 Ermua-Kalamua-Elgoibar zeharbidea.

* URRIA:

13 Larrun 900 m.

20 Urkiolamendi 1.009 m.

27 Helduen Ibialdi Neurtua

* AZAROA:

10 Urdelar 852 m.

17 Mendi Garbiketa

24 Spereologia irteera (Arantzazu-Araotz)

* ABENDUA:

1 Artzanburu 1.368 m.

15 Azkonabitza 724 m.

YON IÑARRA



HARATEGIA ETA URDAITEGIA



KALEBARREN, Z/G 7ENOA. 751249

SORALUZE

"SANTA ANA" IX. ARGAZKI LEHIAKETA

IX CONCURSO FOTOGRAFICO "SANTA ANA"

Soraluzen bizi diren argazkizale guztiek parte har dezakete.

Podrán participar todos los aficionados a la fotografía residentes en Soraluze.

GAIAK - TEMAS:

- A: *Soraluzeri buruzko argazkiak (Jendea, kaleak, paisaia, etab.)*
Fotografías relacionadas con Soraluze (Gente, calles, paisaje, etc.)
- B: *1996ko jaiak Soraluzen (San Andres jaietatik San Martzialetara)*
Fiestas de 1996 en Soraluze (Desde San Andreses hasta San Marciales)

MOETAK - MODALIDAD:

ZURI-BELTZEAN / KOLOREETAN. *Gehienezko neurria: 30x40 zm.*

B y N / COLOR. Tamaño máximo: 30x40 cm.

SARIAK - PREMIOS:

ZURI-BELTZAK: 5.000 pta. + trofeo orijinala.

B y N: 5.000 ptas. + trofeo original

KOLOREETAKOAK: 5.000 pta. + trofeo orijinala.

COLOR: 5.000 ptas. + trofeo original

JAIEN GAIA: Udalak emandako trofeo orijinala.

TEMA FIESTAS: Trofeo original donado por el Ilmo. Ayuntamiento.

AURKEZTEKO EPEA - PLAZO DE ENTREGA:

1996ko irailaren 20a artean, hurrengo toki hauetan:

Hasta el día 20 de septiembre de 1996, en los siguientes lugares:

- *Soraluzeko Udaletxean, Kontrargiren Egoitzan eta Juanma argazki-dendan.*

- Ilmo. Ayuntamiento de Soraluze, Local Social de Kontrargi y Foto Juanma.

Saritutako argazkiak Kontrargi Argazki Kolektiboaren esku geratuko dira.

Las fotografías premiadas quedarán en poder del Colectivo Fotográfico Kontrargi.

Lehiaketaren ebazpen data eta erakusketa egunak aurrez iragarriko dira.

La fecha del fallo, así como la de la exposición, se anunciarán oportunamente.

Inork ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.

Ningún participante podrá optar a más de un premio.

ANTOLATZAILEA: KONTRARGI ARGAZKI KOLEKTIBOA

LAGUNTZAILEA: UDAL KULTURA BATZORDEA

SAN ANDRES JAIXETAN

UZTALAREN 13a : **GAU-PASA MARTXOSOA**

GOZATEGI TALDEA

UZTAILAREN 14a :

12etan **MEZA**

BERTSOLARIAK : *BIXENTE GOROSTIDI*
ALFONSO GIMENEZ

TRIKITILARIAK : "GESALAGA" tarrak

6etan **ADARI JOKOAK**

BERTSOLARIAK

BOLA SARIAK

| | | |
|-------------------|---|---------------|
| 1. 12.000 TROFEOA | - | 2. 8.000 |
| 2. 5.000 | - | 4. U\$TEGABEA |

ERROMERIA

UZTAILAREN 15a :

12etan **MEZA**

HAURRENTZAT JOLASAK

BERTSOLARIAK : *ANDONI EGAÑA*
JON SARASUA

AUZOTARREN BAZKARIA (bertso eta soinuaz alaiturik)

7etatik aurrera **ERROMERIA JOXE GARDOKJREKIN**

Caja Laboral
Euskadiko Kutxa.
Zugandik hurbilago,
Profesionalagoa.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA